

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: **2008/32/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko martxoaren 11koa, urari buruzko politikan jarduera-esparru komunitarioa ezartzen duen 2000/60/EE Zuzentaraua aldatzen duena, Batzordearen betearazte-eskumenei dagokienez**

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DIRECTIVA 2008/32/EE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 11 de marzo de 2008 que modifica la Directiva 2000/60/CE por la que se establece un marco comunitario de actuación en el ámbito de la política de aguas, por lo que se refiere a las competencias de ejecución atribuidas a la Comisión» (*Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 81/60, 2008/03/20koa*).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2008/32/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA

2008ko martxoaren 11koa,

urari buruzko politikan jarduera-esparru komunitarioa ezartzen duen 2000/60/EE Zuzentaraua aldatzen duena, Batzordearen betearazte-eskumenei dagokienez

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, haren 175. artikuluko 1. paragrafoa,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute ⁽¹⁾,

Eta, eskualdeetako Komiteari aurrez kontsulta egin ondoren, Tratatuak 251. artikulua ⁽²⁾ araututako prozedura betetz,

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) 2000/60/EE Zuzentarauak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren ⁽³⁾, xedatzen du zenbait neurri 1999ko ekainaren 28ko Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiaren ⁽⁴⁾ arabera onartu behar direla. Erabaki horretan ezarrita dago zein prozedura bete behar dituen Batzordeak berari dagozkion eskumenak betearazteko.

(2) 2006/512/EE Erabakiak 1999/468/EE Erabakia aldatu zuen. 2006/512/EE Erabakian, Tratatuak 251. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera hartutako oinarritzko egintza batean funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko zer neurri orokor hartu behar diren kontrolatzen duen arautze-prozedura ezarri zen, eta aukera ematen zuen elementu horietako batzuk ezabatzeko, edo egintza funtsezkoak ez diren beste elementu batzuekin osatzeko.

(3) 2006/512/EE Erabakiari dagokionez, Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen ⁽⁵⁾ Adierazpenaren arabera, Tratatuak 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki hartu eta indarrean dauden egintzetan kontrolatzen arautze-prozedura aplikatu ahal izateko, egintza horiek aplikatu beharrekoak diren prozeduren arabera egokitu behar dira.

(4) Komeni da Batzordeari eskumenak ematea, zehaztutako teknikoak eta metodo normalizatuak ezarri eta zenbait eranskin molda ditzan. Neurri horiek orokorrak eta 2000/60/EE Zuzentaruaren funtsezkoak ez diren elementuak aldaraztekoak direnez gero (funtsezkoak ez diren elementu gehiagorekin ere osatu daitezke), 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluan agindutako kontrolatzen arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.

(5) Batzordeak 2000/60/EE Zuzentaruako V. eranskinean, 1.4.1 atalean aipatzen den barne-kalibraketarako sare bat eraiki ahal izateko puntu bidezko erregistro bat ezarri duela kontuan hartuz, amaitutako epeei buruzko erreferentziak ezabatu egin behar dira, 2005/646/EE Erabakiaren ⁽⁶⁾ bidez.

(1) EO C 161, 2007.07.13koa, 45. or.

(2) Europako Parlamentuaren Irizpena, 2007ko uztailaren 11koa (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea) eta Kontseiluak hartutako Erabakia, 2008ko martxoaren 3koa.

(3) L 327 EO, 2000.12.22koa, 1. or. Erabaki hori erabaki honek aldatu zuen: 2455/2001/EE Erabakia (L 331 EO, 2001.12.15ekoa, 1 or.).

(4) L 184 EO, 1999.07.17koa, 23. or. Erabaki hori honek aldatu zuen: 2006/512/EE Erabakia (L 200 EO, 2006.07.22koa, 11 or.).

(5) EO C 255, 2006.10.21ekoa, 1. or.

(6) 2005eko abuztuaren 17ko Batzordearen 2005/646/EE Erabakia, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/60/EE Zuzentaruari jarraiki (L 243 EO, 2005.09.19koa, 1.or), barne-kalibraketarako sare bat eraikitzeko puntu bidezko erregistro bat sortzekoa.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(6) Horrenbestez, aipatutako 2000/60/EE Zuzentaraua aldatu egin behar da.

(7) Zuzentaru honen bitartez 2000/60/EE Zuzentaruaren egin beharreko aldaketak teknikoak direnez eta komitearen prozeduran soilik eragiten dutenez, estatu kideek ez dituzte, ezinbestez, beren zuzenbidean sartu behar. Horrenbestez, ez da beharrezkoa horretarako xedapenik ezartzea.

ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Aldaketak

2000/60/EE Zuzentaruak aldaketa hauek izan ditu:

1) 8. artikuluan, 3. paragrafoaren ordean, testu hau jarri da:

«3. Uraren egoerari buruzko azterketa eta jarraipena egiteko zehaztutako teknikoak eta metodo normalizatuak arautuko dira. Zuzentaru honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek (Zuzentaru bera ere osatu dezakete) 21. artikuluan, 3. paragrafoan, agindutako kontrolaren arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira».

2) 20. artikuluan, 2. paragrafoaren ordean, testu hau jarri da:

«20. artikulua

Zuzentaruaren egokitzapen teknikoak

1. I. eta III. eranskinak eta V. eranskineko 1.3.6 atala aurrerapen zientifiko eta teknikora egoki daitezke; horretarako, kontuan izango dira 13. artikuluan aipatzen diren arroetako hidrologia-planak ikuskatzeko eta eguneratzeko epeak. Zuzentaru honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek, 21. artikuluan, 3. paragrafoan, agindutako kontrolaren arautze-prozeduraren arabera hartuko dira.

Beharrezkoa den kasuetan, Batzordeak II. eta V. eranskinak aplikatzeko eman beharreko urratsak ezarri ahal izango ditu, 21. artikuluan, 2. paragrafoan agindutako arautze-prozeduraren arabera.

2. Datuen transmisioari eta trataerari dagokionez (estatistika- eta kartografia-datuak barne), neurri teknikoak hartu ahal izango dira artikuluan honetako 1. paragrafoan ezarritakoa betetzeko. Horretarako, 21. artikuluan, 2. paragrafoan, agindutako arautze-prozedura ezarritakoari jarraituko zaio» 3) 3) 21. artikuluan, 2. paragrafoaren ordean, testu hau jarri da:

«21. artikulua

Komitearen prozedura

1. Batzordeak komite baten laguntza izango du.

2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5 eta 7. artikulua aplikatuko dira, eta, hartarako, 8. artikuluan xedatutakoa bete egingo da.

1999/468/EE Erabakiko 6. paragrafoko 5. artikuluan jasotako epea hiru hilabetekoa izango da.

3. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluko 1. tik 4. era bitarteko paragrafoak eta 7. artikulua aplikatuko dira, eta, hartarako, 8. artikuluan xedatutakoa bete egingo da».

2008/32/EE zuzentaru (EBren Egunkari Ofiziala, L 81/60 2008/3/20koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

4) V. eranskinean, 1.4.1 atala honela aldatu da:

a) vii) hitz-tartearen ordezt, testu hau jarri da:

«vii) Batzordeak puntu bidezko erregistro-proiektu bat taxutuko du barne-kalibraketarako sare bat eraiki ahal izateko. Puntu bidezko behin betiko erregistroa 21. artikuluko 2. paragrafoan agindutako arautze-prozeduraren arabera arautuko da»;

b) ix) hitz-tartearen ordezt, testu hau jarri da:

«ix) Barne-kalibraketaren emaitzak, eta i) eta viii) hitz-tarteei jarraiki, Estatu kide baten kontrol-sistemak sailkatzeko balioak Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzekoak (Zuzentaraua bera ere osatu dezakete), 21. artikuluan, 3. paragrafoan, agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartuko dira, eta sei hilabeteko epean argitaratuko dira, barne-kalibraketa amaitzen denetik hasita».

2. artikulua

Indarrean sartzea

Zuzentarau hau Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

3. artikulua

Hartzaileak

Zuzentarau honen hartzaileak estatu kideak dira.

Estrasburgon emana, 2008ko martxoaren 11n.

Europako Parlamentuaren izenean, H.-G. PÖTTERING presidentea

Kontseiluaren izenean, J. LENARČIČ presidentea